



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

18/09/04

Gernikako Batzarretxeak nazinoarteko bisitarien marka gainditu dau udan hirugarren urtez jarraian

Gernikako Arbola sinbolikoak atsedean hartzen dauen lekuak gero eta interes handiagoa pizten dau nazinoarteko turisten artean. Errealidade hori dala eta, hirugarren urtez jarraian, atzeritik etorritako bisitarien marka gainditu egin da garagarrilean eta abuztuan. Munduko hainbat herrialdetik etorritako 10.956 persona jaso ditu. Kopuru hori, uda osoan izandako bisitari kopuru osoaren %24,12 da.

Bizkaiko Batzarren egoitzak 732 bisita jaso ditu batez beste azkenengo hilebete bietan. Gorengo mailea abuztuaren 13an, 14an eta 15ean lortu eban, Begoñako Amaren jai egunagaz bat etorrira, egunean 1.000 bisitari baino gehiago jaso ebazan eta. Guztira, 45.408 izan ziran Gernikako barruti historiko-kulturalaren hesiak gainditu ebezan personak.

Euskal Herriko hainbat lekutik foru eraikin enblematikora hurbildu diran personen kopurua garrantzitsua izan dan arren -7.126 turista-, %60 baino gehiago beste Autonomia Erkidego batzuetatik etorri dira. Erregistro horretatik, Kataluniatik (6.776), Madrilgo Erkidegotik (4.604), Valentziako Erkidegotik (4.364) eta Andaluziatik (4.350) etorritakoak azpimarratu behar dira.

EUROPATIK ETORRITAKO TURISTA KOPURUAK GORA EGIN DAU

Azkenengo urteetan nabarmendu dogun moduan, Europa da nazinoarteko turista gehienen jatorria, 8.085 persona bertatik etorri diralako, 2017ko udan baino %3,94 gehiago. Europako ranking horretan Frantzia (3.205), Italia (1.218), Alemania (815) eta Ingalaterra (589) azpimarratu behar dira.

Lehenengo seihilekoaren gorako joereagaz jarraituta, Estatu Batuetako 1.085 bisitari etorri dira Batzarretako egoitzara; datu hori, uda honetan erregistrautako Ameriketako turisten erdia baino gehiago da (2.089). Zerrendea ixteko, Asiako (655), Ozeaniako (89) eta Afrikako (38) turistak daukaguz.

NOTA DE PRENSA

04/09/18

La Casa de Juntas de Gernika bate el récord de visitantes internacionales por tercer año consecutivo en la época estival

El lugar en el que descansa el simbólico Árbol de Gernika despierta cada vez más interés entre los turistas internacionales. Una realidad que ha permitido, por tercer año consecutivo, batir el record de visitantes extranjeros durante los meses de julio y agosto habiendo abierto sus puertas a un total de 10.956 personas provenientes de diferentes países del mundo. Esta cifra supone un 24,12% del total registrado durante la época estival.

La sede parlamentaria vizcaína ha recibido una media de 732 visitas diarias durante los dos últimos meses. Esta cifra alcanzó su máximo durante los días 13, 14 y 15 de agosto, coincidiendo con la festividad de Nuestra Señora de Begoña, superando las 1.000 visitas por día. En total, fueron 45.408 las personas que rebasaron el cercado del recinto histórico-cultural de la villa.

A pesar del importante número de personas que desde distintas partes de Euskal Herria, se han acercado al emblemático edificio foral – un total de 7.126 turistas -, más del 60% lo ha hecho desde otras Comunidades Autónomas. De este registro destacan los y las provenientes de Cataluña (6.776), de la Comunidad de Madrid (4.604), Comunidad Valenciana (4.364) y Andalucía (4.350).

INCREMENTO DE TURISTAS EUROPEOS

Como se viene observando en estos últimos años, Europa vuelve a consolidarse como principal emisor de turistas con un total de 8.085 personas, un 3,94% más que en el verano de 2017. En este ranking europeo destacan Francia (3.205), Italia (1.218), Alemania (815) e Inglaterra (589).

Siguiendo con la tendencia ascendente del primer semestre, 1.085 estadounidenses han recorrido el recinto parlamentario; este dato supone más de la mitad de turistas americanos registrados durante este verano (2.089). Cierran la lista los y las visitantes de Asia (655), Oceanía (89) y África (38).